


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/02/06) Hurrengo saioa: 2018/02/20	Erretaularen zabalkundea	Erretaularen zabalkundea egiteko proiektuaren berri izan dugu (Aldundian aurkezteko prestatutakoa) eta honen jarraipena egiteko elkarte bat sortzearen garrantzia aztertu dugu. Elkarte hau herriko ondarea balioan jartzeaz arduratuko litzateke. Udal batzordeekin koordinatuko den arren, autonomia propioa izango luke.	Elkartearen helburua zein izan daitekeen zehaztu eta herritarren artean informazioa zabaldu.
	Emakumeen eguna	Aitzindariak proiektuak emakume zientzialariak, teknologoak eta asmatzaileak ikusgai jartzen ditu. Erakusketa hau Itsasora ekartzeko ahalegina egingo da.	Goiekirako lan egin duen Irune Virgel, Zamudioko Parke-Teknologikoko kidearekin harremanetan jarri.


LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/02/13) Hurrengo saioa: 2018/02/27	Euskera Ikastaroa	Herrian beharraren arabeko euskera ikastaro bat egitea planteatu da.	Zeraineko udalekoekin egon bertako informazioa jasotzeko. Bai baitakigu bertan 3 ikasle jasotzen ari direla
	Adinekoen aisialdia	Adinekoei aisialdi ezberdinak luzatzeko asmoa agertu da. Honetarako, gizarte langilearen laguntzaz ekimen ezberdinak hausnartzen hasia da, berak gidatzeko asmoa baitugu.	Gizarte langileari gure ideien berri eman.
	Liburutegia	Herrian liburutegi baten beharraz hitzegi dugu.	Non, nolako, zertarako... Hausnartzea komeni da.



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

	Itsasori dagokion dokumentazioa Santa Lutziko udaletxean	Ezki-Itsaso mailan gerra zibilaren inguruan egin zen lanketaren data basearen kopia bat egingo dugu Itsason izan dezagun. Baita ere, Santa Lutziko udaletxean dauden Gotzon Aranburu-k Itsasoko baserri ateratako argazkiak, katastro zaharreko planoak, eta mugen GPS datuen kopia bat ere ekarriko dira.	
--	--	--	--

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/ 02/14) Hurrengo saioa: 2018/02/28	Alegia-Irizar oinezko bidea	Mikel Uribetxebarriak, Foru Aldundiko Errepide zuzendariak bidalitako 2. proposamena aztertu da. Espaloia, bidegurutzeari, iluminazioa eta seinaleak Diputazioak jarriko ditu. Markesinak eta irisgarritasun neurriak Udalen gain joango dira. Espaloiak hormigoizkoak izango dira. Gabezi batzuk ere atzeman dira: oraindik Agerreberri alderainoko espaloia eta Alegitik Ormaiztegirantz joateko irteera karrila ez dira planoan azaltzen.	Ormaiztegiko eta Gabiriako alkateekin proiektua aztertu. Proiektuan dauden gabezien berri Diputazioan azaldu.
	GOIMENera eskaria	Aurkeztutako proiektuaren defentsa egiten ari dira Goimenen eta itxaropentsu daude. Otsailaren amaieran jakingo dugu ebazpenaren berri.	Ebazpenaren berri eman herritarrei
	Zaborren kudeaketa	Sasieta Mankomunitateak emandako zifrak aztertzen aritu gara eta zaborren kudeaketan hobekuntzak planteatzeko bideak jorratu dira: kontenedore marroia jartzearen proposamena, birziklatze kanpaina sendoa planteatzea, birziklatzearen aldeko kontzientzia sortzea, tarifak aztertzea,...	Ideiak sakontzen jarraitu eta proposamen zehatzak planteatu.
	Zozabarroko autobus geltokia	Uraren kanalizazioa bideratu beharko litzateke, ondoren harri-kaxkarra edo hormigoiarekin bidea egin.	Lur eremua norena den argitu (pribatua?-Diputazioarena?)
	Seinale metalikoak	Jarri behar diren lekuetan zuloak eginda daude. Euriteak baretzen direnean jarriko dira seinaleak.	Baserri bideetarako eskatu ziren seinaleak erreklamatu
	Konektibitatea	Itsason Udaletxeko internet sarea Euskaltelekin jarri da (Udalweb erabiltzeko baimendua) eta telefonoa linea zuntz optikoa erabiliz (Movistar).	Udaleko gela desberdinetara kobertura wifi bidez emateko



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

		Matximentako baserrietako beharrei erreparatu zaie eta konektibitatearekin batera, beste gai batzuk tratatzeko bilera bat egitea aurreikusten da (Itsasoko, Azpeitiko, Beasaingo eta Ezkioko alkateak eta Matximentako auzo-alkatea)	beharra aztertu. Aurreikusten den bilerarako data eta gai zerrenda aztertu
	Alegi barruko errepidean arazoak	Apaiz-etxea eta frontoiaren tartean dagoen sarbidean arazoak izan dira oinezko eta auto baten artean. Gune hori babesteko ideia batzuk aipatu dira: loreontziekin edo pretil batekin sarrera horretako zati bat babestu, zebrabidea margotu,...	Aparejadorearekin hitz egin eta arazoa saihesteko irtenbideak topatu.